

## IKUSI-MIKUSI. Piezen letrak

### Jolasak:

- Zer jan duen asmatu buruan kask eginez
- **Ikusi-makusi**
  - Ikusi-mikusi!
  - Zer ikusi?
  - Ikusten dut, ikusten dut... x letrarekin hasi eta x-rekin akitzen da.
- **Dendaneko ataritan**
  - Dendaneko ataritan...
  - geldi, geldi, geldi, geldi.
  - Iturritan...
  - trostan, trostan, trostan, trostan!
  - Benta zaharreko atarian...
  - galopin, galopin, galopin, galopin, galopin!

### Esamoldeak:

- Kaka zaharra
- Bai, to!

### Zirtoa:

- Barkatu!
- Ez da pekatu

### Kantua:

- **Itsasoan ari dira**
  - Itsasoan ari dira
  - arbolak landatzen,
  - itsuak ikusi du

etxe bat erretzen,  
mutua oihuka,  
jendea biltzen,  
hanka motza lasterka,  
uraren garrai(a)tzen.

**Zotz egiteko:**

- Zirristi-mirristi, gerrena plau, olio zopa, kikirri salda, urun, plerun, klik!

**Asmakizuna:**

- Arbola batean hamabi adar. Adar bakoitzean lau habia eta habia bakoitzean zazpi arrautza. Zer dela pents? (Urtea)